

Euskal AEko eraikuntza sektorearen negozio-zifra %18,2 gutxitu zen 2013an

Langile okupatuak %8,8 gutxitu

2013an eraikuntza-sektorean jaitsiera izan genuen (%-18,2) negozio-zifraren kopuru garbian, 2009ko bide negatiboan jarraituz, Eustaten datuen arabera. Langile okupatuak, %-8,8; 6.053 lanpostu garbi gutxiago.

Bilakaera negatiboa aldagai ia guztietan, indar ezberdinez. Pertsonal-gastuak, %-10,1; hornidura-gastuak %-9,2; kanpo-zerbitzuetoakoak %-13,4. 2013an hobera egin zuten sektoreko enpresen emaitzek, zergen aurreko emaitza positiboarekin; ekitaldiaren emaitzan, negatiboa izanik ere, hobekuntza nabarmena. Inbertsioa %255,9 hazi da; guztira 324 milioi.

Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Prezio korranteak (mila €)

	2013	2012	Δ %
Landunak	63.118	69.171	-8,8
Amortizazioetarako zuzkidurak	230.458	229.681	0,3
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	10.093.411	12.342.619	-18,2
Hornimenduak	6.027.905	6.640.032	-9,2
Kanpo-zerbitzuak	1.229.895	1.420.269	-13,4
Lagileria-gastuak	2.450.799	2.724.717	-10,1
Emaitza zergak ordaindu aurretik	16.407	-136.666	-
Eragiketa jarraituetatik ekitaldiaren emaitza	-25.089	-149.271	83,2
Egindako inbertsioak	324.044	91.045	255,9


Iturria: Eustat. Eraikuntzaren estatistika

Lurraldeetan beheraka bai negozio-zifrak, bai enplegua. Araban dugu negozio-zifraren jaitsierarik handiena, %-22,7. Gipuzkoan %-18,4, Bizkaian %-16,8. Langile okupatuak: Bizkaian %-9,3, Araban %-9; Gipuzkoan %-7,7.

Eraikitako ondasunaren azken erabileraren araberrako salmenten banaketagatik, 2013an eraikuntza-sektorearen negozio-zifraren %59 etxegintzatik etorri zen, %22 obra zibiletik eta %17 sustapenetik.

Eraikuntzaren %36 bizileku-obra da; berria %21 eta %15 zaharberritzeko. Obra zibil berria sektorearen %16 da.

Eginiko ondasunaren azken erabilera-motaren arabera salmenten banaketa. Euskal AE



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
[Euskal AEko eraikuntzaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)
[Euskal AEko eraikuntzaren estatistika -datu bankua](#)